



Arartekoaren ebazpena, 2009ko otsailaren 11koa. Horren bidez, Aretxabaletako Udalari gomendatzen zaio ofizioz baliogabetu ditzala auzokide bati 2007. urteaz geroztik zabor-tasa gisa bidali dizkion likidazioak, hari ez baitio beraren etxebizitzan zabor-bilketa zerbitzurik egiten.

Aurrekariak

1. (...) auzoko (...) auzuneko bizilagun batek zalantzan jarri zuen Arartekoaren aurrean Aretxabaletako Udalaren jokaera. Izan ere, toki erakunde hori zabor-tasa kobratzen hasi zitzaion 2007. urtearen hasieran, nahiz eta haren etxebizitzan zabor-bilketa zerbitzurik egin ez.

Eremu horretan edukiontzirik ez zutela ohartarazi zuen kexagileak. Egiaz, haren esanean, auzunetik 5 kilometrora zeuden edukiontzirik hurbilenak. Onartu zuenez, gertuxeago, auzunetik 3 bat kilometrora, baziren beste edukiontzi batzuk, baina Oñati udalerrian kokatuta zeuden.

2. Erakunde honek, bere informazio-eskaeran, hauxe adierazi zion Aretxabaletako Udalari: etxebizitzaren eta zabor-edukiontzien artean distantzia luzea zegoenez gero, ez zela bidezkoa auzokide horri zabor-tasa kobratzea, udalerriak ez baitzion benetan zabor-bilketa zerbitzurik egiten.

Horrela, zerbitzu publikoak egiteagatik eta jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzari buruz, Aretxabaletako Udalean 2007an indarrean zegoen ordenantzan ezarritakoa azpimarratu genuen: “*Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzen du zergagaita...*”. Era berean, udal ordenantza horren arabera: “*zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa*”. Alegia, ez zen nahikoa zerbitzu hori oro har ondasun higiezinaren titularrentzat eskuragarri egotea zerbitzua udalerrian sortu zelako; aitzitik, tasa hori kobratu ahal izateko, ezinbestekoa zen ordainketa erreklamatzeko zitzaien herritar zehatzei zerbitzu hori benetan egitea.

3. Aretxabaletako Udala tasa kobratzearen alde agertu da bere erantzunean, eta honako hau adierazi du: “*...Egia da kobrantza egiten ari dela, onartutako Ordenantza Fiskalean oinarrituta. Nolanahi ere argitu behar da, nahiz eta bere etxebizitza Aretxabaletan gertuen duen bilketa puntutik 5.150 metrora eta Araotzen (Oñatin) gertuen duen bilketa puntutik 2.420 metrora egon, kobratzen zaiona ohiko errezioboaren %40a dela, ohiko errezioboaren %60a zaborraren bilketa eta garraioari dagokiolako eta gainontzeko %40a, zaborra uzteko jarritako edukiontziren batean botatzen duen zabor horren kudeaketari.*”



Erreklamazioa kontuan izanda, kexan azaldutakoa eta Aretxabaletako Udalak bidali digun informazioa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Zerbitzu publikoak egiteagatik eta jarduerak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzeko ordenantzan zera zegoen ezarrita jada 2007. urtean: *“Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzen du zergagaia..”* (3. artikulua). Baita honako hau ere: *“zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa”* (10. artikulua). Hau da, tasaren ordainketa eskatu ahal izateko, ezinbestekoa da udalerrian zerbitzu hori sortzeaz gain, tasa ordaintzea eskatzen zaien herritarrei zerbitzu hori benetan egitea.

2007. urtean Aretxabaletako Udalak ordenantza horren A eranskina aldatu zuen, hiri-hondakinak bildu, garraiatu eta errausteko zerbitzuari buruzkoa. Eranskinaren testua honela idatzita geratu zen, tarifei eta horiek ezartzeko irizpideei dagokienez:

KATEGORIA	TARIFA	LANGILE KOPURUA	EKIBALENTZIAK	TASA 2007 (€/URTE)
1. Etxebizitzak	1.0	-	0,40	25,31 €
	1.1	-	1,00	63,28 €

“Tasa hauek aplikatzeko ondorengo irizpideak izango dira kontuan:

1. Etxebizitzak (1 kategoria). Bi tarifetan banatzen dira:

a) 1.0. Lurzoru ez urbanizagarrian kokatutako etxebizitzak (landa auzoak), hiri hondakin bilketa puntua 150 metro baino urrunago daukatenak. Tarifa honetan sartzen dira ere artikulua honetako 3.a. puntuan deskribaturiko kasuak.

b) 1.1. Beste etxebizitzak. Tarifa honetan sartzen dira lurzoru urbano edo urbanizagarrietan kokatutako etxebizitzak (artikulu honetako 3.a. puntuan azaltzen den salbuespenarekin), eta baita lurzoru ez urbanizagarrian kokaturikoak, baina bilketa puntua 150 metro edo gertuago daukatenak, bilketa puntu hori erabiltzailearen auzoan kokaturik dagoen ala ez kontuan izan gabe.

(...)

3. Lurzoru urbano edo urbanizagarrian kokaturiko zergadunak bilketa puntua 150 metro edo gertuago eduki behar dute. Kasuren baten hau ez bada betetzen, eta Mankomunitateak kasua aztertu ondoren, bilketa puntua 150 metro edo gertuagora jartzea ezinezkoa dela ebazten badu:

a) Etxebizitzak: 1.0. tarifa ordainduko du.” (8. artikulua)



Artikulu horren idazketari bere horretan eutsi zaio eta ordaindu beharreko kuota besterik ez da aldatu, horrek igogeratxo bat izan baitu urteotan.

2. Zerbitzua benetan egiteari dagokionez, egokia iruditzen zaigu epaitegi hauen adierazpenak aipatzea: Auzitegi Gorenarenarena (1997ko ekainaren 7ko epaia, 12.362/1991 zenbakiko errekurtsua), Errioxako Auzitegi Nagusiarena (1997ko uztailaren 30eko epaia, 396 zk., 292/1996 zenbakiko errekurtsua) eta Gaztela-Mantxako Auzitegi Nagusiarena (1997ko irailaren 25eko epaia, 408 zk., 560/1995 zenbakiko errekurtsua). Horien guztien arabera, bidegabetzat jotzen da tasa kobratzea udalak ordainketa erreklamatzan dion herritar zehatzari benetan zerbitzurik egiten ez badio.

Horrela, Auzitegi Gorenak, arestian aipaturiko epaian haxe adierazi zuen:

“...Es obligado, a este respecto, recordar que el hecho imponible de la tasa viene constituido por la prestación de un servicio o la realización de una actividad que beneficia o afecta de modo particular al sujeto pasivo. Lo dice taxativamente el artículo 26.1, a) de la Ley General Tributaria de 1963 (RCL 1963, 2490 y NDL 15243), según el cual ‘las tasas son tributos cuyo hecho imponible consiste en la prestación de servicios o la realización de actividades en régimen de Derecho público que se refieran, afecten, o beneficien a los sujetos pasivos, cuando concurren las dos circunstancias siguientes: a) Que sean solicitud o recepción obligatoria para los administrados; b) Que no puedan prestarse o realizarse por el sector privado por cuanto impliquen intervención en la actuación de los particulares o cualquier otra manifestación del ejercicio de autoridad o porque, en relación a dichos servicios, esté establecida su reserva a favor del sector público conforme a la normativa vigente’.

Por tanto, ni siquiera la mera existencia de un servicio municipal es suficiente para constituir a una persona en sujeto pasivo de la tasa establecida para su financiación, si el servicio no se presta de modo que aquélla pueda considerarse especialmente afectada por aquél, en forma de beneficio efectivo o provocación por el interesado de la actividad municipal, pues sólo con esas características puede ser un servicio municipal legitimador de la exigencia de la tasa.”

Halaber, goian aipaturiko beste adierazpenetako bat ere hona ekarri nahi dugu, hain zuzen, Gaztela-Mantxako Auzitegi Nagusiaren 1997ko irailaren 27ko epaia, izan ere, kexa-espedita honetan aztertzen ari garenaren antzeko egintza bat aztertzen da bertan. Egintza hori dela-eta, auzitegi horrek, bere ebazpenean, bidegabetzat jo zuen tasa kobratzea, egiaztatuta geratu baitzen ez zegoela zabor edukiontzirik errekurtsu-egilearen bizilekutik 300 metro baino gutxiagora. Horrelako kasuetan, jurisprudentziak onartzen duenez, ez da benetan udal zerbitzurik egiten, ez baita gauzatzen tasaren ordainketa eskatzea ahalbidetzen duen egitate



zergapegarria (alegia, subjektu pasiboari bereziki mesede egiten dion edo bereziki eragiten dion zerbitzu bat egitea edo jarduera bat burutzea).

Zehazki zera adierazten da epai horretan: *“en el domicilio de la entidad recurrente no existe ni ha existido nunca contenedor de basuras, encontrándose el más próximo a 300 metros de distancia, y que por tanto no se le ha realizado el servicio de recogida de basuras, procede declarar vulnerados los artículos 20 y 26 de la Ley de Haciendas Locales, ya que para poderse exaccionar una tasa determinada es necesario que el municipio preste el servicio y que éste beneficie especialmente al administrado o le afecte de modo particular, por lo que no se puede exaccionar una tasa por un servicio que no se presta”.*

3. Toki araubideari buruzko gure legeriak ezartzen duenez, udalerriek zenbait eskumen bete behar dituzte beren udal eremuan, besteak beste: “hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua” (25.2.1 artikulua).

Zerbitzu horrek nahitaez jaso beharreko zerbitzua izatea du bereizgarri, hau da, zerbitzua erabiltzailearen esku jarri ondoren, erabiltzaileak zerbitzu hori finantzatzen lagundu beharra dauka, tasa bat ordainduz, zerbitzua erabili nahiz ez erabili. Hala ere, herritarrek nahitaez zerbitzua jaso beharrak, kontrapuntu gisa, administrazioari betebeharrak bat ezartzen dio: zerbitzua benetan eta modu eraginkorrean jarri behar du eskuragarri auzokideentzat. Udalerrian ondasun higiezin baten titular izate hutsak ez die sortzen auzokideei hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua mantentzen laguntzeko obligaziorik. Herritarrari tasa ordain dezan eskatu ahal izateko, ordainketa erreklamatzeko duen administrazioak ahalguz ahal egin beharra dauka ondasun higiezin horiek kokatuta dauden eremu zehatzetan zerbitzu hori egitearekin lotutako elementuak jartzeko: edukiontzia, zaborrak biltzeko guneak...

4. Gai horri buruz, honako hau nabarmendu nahi dugu: aztertzen ari garen kasuan, etxebizitza horietatik gertuen dauden udal edukiontzia ez daude auzunetik 300 bat metrora, baizik eta –udal horrek bere erantzunean dioenez– 5.150 metrora. Hori dela eta, ez dago inolaz ere esaterik auzokide horri zabor-bilketa zerbitzua benetan egin zaionik, 2007. urteaz geroztik udala tasaren zenbatekoa kobratzen hasi zitzaionetik. Bestela esanda, auzokide horri dagokionez, ez da tasa kobratzea ahalbidetzen duen egitate zergapegarria burutu eta, beraz, ez da bidezkoa hori ordainaraztea. Horregatik, toki erakunde horrek kexagileari itzuli beharko lizkioke kontzeptu horregatik kobratu dizkion kopuruak.





Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egiten da:

1/2009 GOMENDIOA, otsailaren 11koa, Aretxabaletako Udalari egina

1. Ofizioz baliogabetu ditzala (...) jaunari 2007. urteaz geroztik zabor-tasa gisa bidali dizkion likidazioak, hari ez baitio beraren etxebizitzan egiaz zabor bilketa zerbitzurik egin.
2. Tasa horren eroldan auzokide horri ofizioz baja eman diezaiola, (...) eremuan zerbitzu hori benetan egiten ez den bitartean.

